


Ihesi

Testua eta argazkiak:

GORKA AZKARATE

Euskal Herria ezagutuz:
Urretxu (Gipuzkoa)



Santa Barbarako ermitaren lehen aipamenak XVI. mendeko idatzietan aurkitu dira. Bere historian zehar, hainbat birmoldaketa izan ditu; iaz eraldaketa deigarria egin zen ermitari itsatsirik dagoen tabernan eta inguruko aisia gunean: Urretxuko aterpetxe berriak ateari ireki zituen. Aterpetxetik bertatik abiatuz, hainbat ibilaldi egin daitezke natur gune berdingabeaz gozatuz. Lau ibilbide proposatzen dira ondorengo lerroetan.



Irimoren magalean

1. Santa Barbara-Trekutz-Kateaga-Iturraundi-Santa Barbara

SANTA BARBARA aterpetxe ondotik abiatuko gara Trekutzera eramango gaituen bidetik. Zabaleta jauregia eta Deskarga mendatea ezkerretara begi bistan ditugula, Urretxuko baserririk altuenera helduko gara, Agerrera. Aurreraxeago, ezkerreko bidea hartuko dugu, Deskargatik datorren pistarekin bat egiteko.

Kateagaerrekako eremu laiotza atzean utzi eta laster helduko gara Trekutzeko atsedenekura.

Berriz ere Santa Barbarara itzultzeko, aparkaleku gainetik Irimo aldera jotzen duen bidea hartuko dugu. Aurrera eginaz, Kateagako hegira helduko gara. Aizkorri, Udaitz, Anboto eta Gorbeia, besteak

beste, bistan izango ditugu talaia paregabe honetatik. Hesia gainditu eta Irimoko gurutzerako norabidea hartuko dugu; behin Iturriaundiko hegia eta Lizartxoetako txabola atzean utzi ostean, bizkor iritsiko gara abiapuntura, 6,5 kilometro inguruko txangoa burutu ostean, 220 metro gaindituta.

2. Santa Barbara-Trekutz-Nebera-Aterpetxea

IRIMO MENDIA inguratzen duen ibilaldi zirkular eder hau egiteko (7.2 km eta 170 m+), Santa Barbara aterpetxetik abiatuko gara, Trekutzeko atsedenekura heldu arte (ikus 1. ibilbidea). Han, mendiaren magalari jarraitzen dion basoko pista hartuko dugu.

Etxola pasa ondoren, iturria dugu parez pare. Hemendik eta helmugara bitarteko bidea hein handi batean basoan barrena egingo dugu. Bide zoragarria, batez ere uda partean, laiotza baita zinez.

Beste bi kilometroko ibilbidea-

ren ondoren, Neberako zabalera iritsiko gara (elurra gordetzeko bi zulo daude inguruotan). Gune honetan alde batera edo bestera egin daiteke Santa Barbarara iristeko. Arkaitzaldetik nahiz Ipeñarrietako jauregitik, erraz iritsiko gara abiapuntura.

3. Santa Barbara-Lizarriturri-Gurutzea-Trekutz-Aterpetxea

“ZAZPI PUNTA” izenez ezagutzen da ibilaldi famatu hau (7 km, 360 m+). Irimoko gurutzera doan bidea topatzea erraza da, Santa Barbaratik zuzenean gorantz jo besterik ez dugu egin behar. Ekainaren 28an 75 urte beteko dituen Lizarriturriko iturrira helduko gara lehen ahalegi-naren ostean, eta bertan merezitako tragoa hartuko dugu. Hemendik gurutzera, apenas izango dugun

arnasa hartzeko tarterik. Ez da bide luzea, baina bai gogorra. Izarraitz, Ernio, Aralar, Aizkorri, Aloña... Bizkaia aldea soilik izango dugu ezkutuan.

Irimoko gurutzea herritik modu nabarmenenean ikusteko dago bertan kokaturik, baina ez da hori mendiko gailurrik altuena. Aterpea eta gurutzea, auzolanean eraiki zituzten, hilabete eskaseko

epean, 1955. urtean.

Irimoko gailurreari ekiteko tenorea da. Gailurrez gailur, Trekutzeko atsedean gunera helduko gara berriro. Arbeletatik aurrera Udalaiz eta Anboto izango ditugu bidela-gun, ikuspegia aldatu egingo baita. Behin Trekutzera iritsita, 1. ibilbidean deskribaturiko igoerako bidea jarraitu besterik ez dugu egin behar, beherantzko norantzan, baina.



4. Santa Barbara-Beain-Lizarriturri-Aterpetxea

SANTA BARBARA baselizaren ondotik abiatuko gara errepidean behera, Ipeñarrieta jauregia eta Aikur Erle Museoaren azpiko aldetik Santa Krutzeko bidegurutzeraino. Bihurgune horretan ezkerrera, Nebera aldera, hotelaren gainaldetik doan pista zabala hartuko dugu. Ibilera lasaian aldapatxoari aurre eginez, berehala iritsiko gara Añadiegiko

inguruetara. Neberakoa utzi eta eskubitik Beaingo bideari helduko diogu oraingoan. Laster izango ditugu begi aurrean Beaingo baserriak.

Etxe ondoko bidean emango ditugu hurrengo pausoak Esparruko inguruetara iritsi arte. Hemen, ezkerrera eta gora egiten duenari segiko diogu, Tortoa eta Nebera-aldeko pagadiraino. Bere-

hala helduko gara Neberagainara, bertan topatuko ditugularik lekua-ri izena ematen dioten elurzuloak. Neberako toponimo-harriari kasu eginda, goraka doan mendi-bideari jarraitu eta ezkerrera hartuz, Lizarriturrietako inguruetara iritsiko gara. Lizarriturritik aterpera jais-ten den bidea ezaguna da dagoe-neko (5,7 km, 225 m+).

URRETXUKO ATERPETXEA ZAIN DUZU



Bista paregabeak: Anbototik Txindokira, Gorbeia, Udalaiz eta Aitzgorri barne. Naturak inguratutik Irimo magalean. Ipeñarrieta jauregiaren alboan.

Taberna - Jatetxea. 56 lagunentzako logelak

aterpetxea@urretxu.net

www.urretxu.net

943 72 33 87



Urretxu
bizia eta giroa